



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko otsailaren 18a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00418. Galdera, Buñuelgo industrialdera sartzeko biribilguneko obrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00422. Galdera, 2025eko aurrekontu orokorretako “547001 52300 6057 312804 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Transformazio digitalari buruzko plana” aurrekontu-partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00423. Galdera, Nafarroako Nutrizio Estrategia taxutzeari buruz 2025eko aurrekontu orokorreari aurkeztutako 390. zuzenketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-25/PES-00424. Galdera, Nafarroako Ubideko proiektu fotovoltaikoan egindako aurrerabideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00425. Galdera, lehendakariak 2025eko ekainaren 12an iragarritako kanpo-auditorien baldintza-agiriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00426. Galdera, itxaron-zerrenden datuen atzera begirako zuzenketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00427. Galdera, Toki-administrazioako erretiro partzialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00428. Galdera, animaliak babesteko kontsulta batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00429. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren lan-jardunaldietatik heldu diren proposamenen txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00430. Galdera, Nafarroako enpresen 2024ko kenkari fiskalen zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00431. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren eta Autismoaren Nafarroako Fundazioaren arteko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00432. Galdera, Herri-lanetako zerbitzuruak konplexutasun eta zenbateko handieneko obren kontratuen kontratazio-mahaietan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- 11-25/PES-00433. Galdera, “Hiri Zirkularra” proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00434. Galdera, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikularen 2 b) apartatuan ezarritako murrizketak aplikatzeko datari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-25/PES-00435. Galdera, Espainiako Gobernuaren beken eskumena lagatzearen aurka egoteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00436. Galdera, BAI fundazioaren eta BAI programaren finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00437. Galdera, hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeari eta formakuntza euskaraz emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00438. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako ibilgailuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00439. Galdera, Kulturako Lanbideen Legean eta Artistaren Estatutuan egindako aurrerabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00440. Galdera, bide-seinaleen errotulazio linguistikoa ezartzeko protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-25/PES-00441. Galdera, toki-entitateen eta autonomia-erkidegoen inbertsio-jarduerari laguntzeko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 2ko 15/5025 Errege Lege-dekretua Nafarroan aplikatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-25/PES-00442. Galdera, Osasunbideko kudeatzaile berriaren hautaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-25/PES-00443. Galdera, kalean bizi diren pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00444. Galdera, Ingurumenean eragina duten jarduerak arau tzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen urraketak direla-eta hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-25/PES-00445. Galdera, ospitaletik irten ondotik berriz ere kalean bizi behar den adingabeekiko familiaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-25/PES-00446. Galdera, Tafallako industrialdeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00418. Galdera, Buñuelgo industrialdera sartzeko biribilguneko obrari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mario Fabo Calero jaunak Buñuelgo industrialdera sartzeko biribilguneko obrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mario Fabo Calero jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du Lurralde Kohesiorako Departamentuak eta Buñuelgo Udalak udalerrri horretako industrialdera sartzeko biribilgunea finantzatzeko sinaturiko hitzarmenari buruz (11-25/PES-00418). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

• Zergatik ez du oraindik sinatu Lurralde Kohesiorako Departamentuak Buñuelgo Udalarekin Buñuelgo industrialdera sartzeko biribilgunea finantzatzeko hitzarmena?

Toki-esparruko izapideak direla eta, ezin izan da sinatu.

• Buñuelgo Udalak hitzarmena sinatu du eta aurrekontu-partida egon badago; hortaz, zergatik ez da hasi oraindik Buñuelgo industrialdera sartzeko biribilgunearen obraren lizitazioa?

Oraindik ere ez dagoelako sinatuta bi administrazioen arteko hitzarmena.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00422. Galdera, 2025eko aurrekontu orokorretako “547001 52300 6057 312804 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Transformazio digitalari buruzko plana” aurrekontu-partidari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, 2025eko aurrekontu orokorretako “547001 52300 6057 312804 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Transformazio digitalari buruzko plana” aurrekontu-partidari buruzkoa, 2025eko azaroaren 28ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak eginiko informazio-eskariari loturik (11-25/PES-00422):

Partida horri dagokionez, hauxe da egungo egoera:

– Elektrokardiografoak. Uztailean adjudikatu ziren, 188.298,40 euroan, eta 2025eko azaroaren 18an entregatu ziren.

– Ekografoak. Uztailean adjudikatu ziren, 332.662,80 euroan, eta dagoeneko entregatu dira.

Bi kasuetan, elektro finko bat, eramangarri bat eta ekografo bat integratu behar dira, baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko eta adostasuna eman ahal izateko. Integrazio hori urtea amaitu aurretik egitea aurreikusten da.

– Dermatoskopiaok. Uztailean adjudikatu ziren, 229.891,14 euroan, eta laster entregatuko dira kontratuan jasotzen ziren 100 unitateak. Dermatoskopiaok ez dira integratzen, eta, beraz, entregatzeko unean ordaintzen ahal dira, adostasuna eman eta faktura aurkeztu ondotik.

Honekin batera doazkizu adjudikazioaren zenbatekoaren eta unitateen koadroa.

	ESPEDIENTEA	UNITATEAK	ADJUDIKAZIO-DATA	ENPRESA ADJUDIKAZIO-DUNA	HITZARTUTAKO ZENBATEKOA (BEZa barne)	NAHITAEZKO ZENBATEKOA (BEZa barne)
DERMATOSKOPIOAK	IBE007	100	2025/07/03	PALEX MEDICAL SAU	229.891,14 €	EMAN GABE
EKOGRAFOAK	OB102	14	2025/07/03	SAKURA PRODUCTOS HOSPITALARIOS SA	332.362,80 €	EMAN GABE
EKG FINKOAK + ERAMANGARRIAK	OB100	90	2025/07/03	B.F. MEDICA SL	188.298,41 €	EMAN GABE
				GUZTIRA	750.552,35 €	

Lizitaziotik 84.589,64 euroko soberakina gelditu da (BEZa barne), eta 2026an erabiliko da, MRR Atención Primaria enpresak finantzatzeko ahal duen beste proiektu baterako.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00423. Galdera, Nafarroako Nutrizio Estrategia taxutzeari buruz 2025eko aurrekontu orokorreari aurkeztutako 390. zuzenketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Nafarroako Nutrizio Estrategia taxutzeari buruz 2025eko aurrekontu orokorreari aurkeztutako 390. zuzenketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 28ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez eginitako informazio-eskariari loturik (11-25/PES-00423):

Nafarroako 2025eko aurrekontu orokorrean 390 eta 391 zuzenketek proposatzen dute Nutrizio Estrategia egiten duen dietista/nutrizionista bat behin-behinean kontratatzea, eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioaren aurrekontu-lerro bati esleitu zitzaizkion.

Zuzenketaren zioak hauxe jasotzen du: "Nafarroa erreferentzia eta aitzindari izaten ahal da Nutrizio Estrategia bat garatzeko eginahalean, osasunaren arloan duen asistentzia- eta ikerketa-potentziala Foru Komunitateko elikagai-industriarekin loturik. Horretarako, asistentzia-mailen arteko lan integratua egin behar da, irizpide zientifiko bateratuetan oinarritutako gomendioekin eta biztanleriaren nutrizio-egoeraren arretan inplikaturako estamentuen parte-hartzearekin. Nafarroako nutrizio-estrategiak nutrizioarekin loturiko asistentzia-arazo nagusien erantzun behar die: 1. Gehiegizko pisua eta obesitatea, horiek identifikatzen baitira patologia kroniko, kardiobaskular eta minbizi guztien oinarrian, baita arazo osteomuskularrak, ginekologikoak eta osasun mentalekoak ere, besteak beste. Eta garrantzi berezia du haurren obesitateak Foru Komunitatean eta zaurgarritasun psikosozialeko faktoreak dituzten kolektiboetan. 2. Gaixotasunarekin lotutako desnutrizioa. Ospitaleetan, 70 urtetik gorako pertsonen % 30i baino gehiagori eta adin horretatik beherakoen % 25i baino gehiagori identifikatu diote, eta

pazienteen pronostikoari eta asistentzia-premiari lotuta dago. 3. Disfagia: buruko eta lepoko minbiziaren tratamenduei lotua; birika, esofagoa eta prozesu zerebroaskularrak eta degeneratiboak (ELA, parkinsona, dementzia...). 4. Elikadura-jokabidearen nahasmenduak: Osasun Mentaleko estrategiarekin integratuta, Osasun Mentaleko Gerentziaren jantoki terapeutikoan eta beste zenbait proiektutan. 5. Metabolopatiaren nutrizio-tratamendu eskusiboa (glukogenosia, fruktosemiak, fenilzetonuriak, azidemiak...) eta nutrizio-tratamendu eskusiboko beste gaixotasun batzuk (adibidez, zeliakia). 6. Dagoeneko garatuta dauden beste gaixotasun batzuen nutrizio-tratamendua: diabetesa, hesteetako hanturagaixotasuna, paziente onkologikoak eta horiei lotutako nutrizio-nahasmenduak edo tratamendu kirurgikoen ondoriozkoak, kimioa eta erradioterapiak. Gainera, estrategia horretan elikaduraren oinarriak garatzen ahal dira ospitaleetan, zentro soziosanitarioetan, jantoki sozialetan, enpresetako jantokietan, ikastetxeetan eta udal-erakundeek duten elikadura-euskarria kudeatzean. Era berean, Elikadura Segurtasunean eta Nutrizioan oinarrituta egiten den elikadura-kontrol beharrezkoa indartuko luke".

Estrategiak lantzea Osasun Zuzendaritza Nagusiaren Plangintza, Estrategia Sanitario eta Ikerketa Zerbitzuaren ardura da. Horretarako, bada inplikaturik diharduten osasun-sistemako zenbait profesionalen lankidetzaren ere, bai eta hiru osasun-arloen ordezkariak eta beharrezkotzat jotzen diren eragile guztiak ere, hala nola elkargo profesionalak eta herritarak.

Kontratazioa egin aurretik, proposamenaren bideragarritasuna aztertu zen, kontuan izanik haren hedadura eta patologia, jantokietan eta Elikagaien Segurtasunean oinarritutako ikuspegia. Kontuan izan zen, orobat, Nafarroako biztanleriaren nutrizio-egoeraren diagnostikorik ez izateak eragindako zailtasuna.

Zuzenketa-proposamena gauzatzeko, zenbait lan-ildo identifikatu ziren Plangintza, Osasun Estrategia eta Ikerketa Zerbitzuaren, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioaren Gerentziaren artean, egingarritasun eta zehaztasun handiagoa lortzeko eskura zen denbora-tartean, zenbait zerbitzutan lantzen ari ziren ekin-

tzetatik abiatuta. Hasieran, hiru hauek identifikatu ziren:

1. Nafarroako biztanleen nutrizio osasungarria: bizimodu eta ingurune osasungarriak.

2. Gaixotasunarekin lotutako desnutrizioari heletzea Foru Komunitateko laguntza-zentro publikoetan.

3. Gehiegizko pisuari (gainpisua eta obesitatea) aurre egitea Nafarroako biztanlerian, bizitzako etapa guztietan.

Bestalde, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2022. urtearen amaieratik Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan abiarazitako lanari jarraitu nahi zitzaion. Lan horretan, hasiak ziren Elikadura Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziaren (AESAN) Elikadura Katearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionalaren 16. Programari buruzko informazioa jasotzen, ikastetxeetako menuei, saltzeko makinei eta kafetegiei loturik.

Hala, Nafarroako Nutrizio Estrategia landu aurretik, beharrezkotzat jo da diagnostiko bat egitea, ekintza zehatzetara bideratzeko, eta ezinbestekotzat jo da, orobat, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak egindako hasierako lanarekin jarraitzea. Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantoki motak eskualdekoetatik harago zabalduko dira, eta jantoki horiek in situ ebaluatuko dira. Horri esker, gainera, Foru Komunitatea zer egoeratan dagoen jakinen da, 315/2025 Errege Dekretu onetsi berriak ezartzen duenari dagokionez.

Horretarako, 390 (30.000 euro) eta 391 (11.000 euro) zuzenketa parlamentarioen aurrekontu-zuzkidura Nafarroako Foru Komunitateko nutrizioaren egoeraren diagnostikoa zabaltzera bideratu da; izan ere, diagnostiko finago batek estrategia efizienteago bat lantzea eta eskola-jantokietan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren lanean aurrera egitea ekarriko du.

Profil dietista-nutrizionista zuten bi profesional kontratatu ziren 2025eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra, eta bi zatitan lan egitea planteatu zen kontratatutako bi pertsonentzat:

1. Ekainaren 16tik abuztuaren 31ra:

Nafarroako haurren eta helduen dietari buruzko elikagai-kontsumoari eta bizimoduei buruzko dokumentazioa berrikustea eta biltzea. Informazio-iturri hauek nabarmentzen dira, erabilgarritasunagatik, aldizkakotasunagatik eta sendotasunagatik:

- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren elikadura-kontsumoko panela. Etxeetako kontsumo-panela.

- Osasunari buruzko inkestak, Nafarroako Foru Komunitateko datuekin.

- Nafarroako Gizarte eta Bizi-baldintzen Inkestak. Nafarroako Estatistika Institutua (NASTAT).

Eskura dagoen informazioarekin lantzen ahal ez den diagnostikoa osatzeko behar posibleak identifikatzea.

2. Irailaren 1etik aurrera:

Kontrataturako bi pertsonetako batek jarraitu du lanarekin, kontratua amaitu aurretik fase diagnostikoaren txostena eta erakundearekin adostutako plan operatiboaren proposamena aurkezteko.

Bigarren pertsonak laguntza eman du unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako jantokiei buruzko lana jarraitzeko eta zabaltzeko, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak zuzenduta, Elikadura Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziaren irizpideei jarraikiz (Elikadura Katearen Kontrol Ofizialeko Plan Nazionalaren 16. Programari dagokionez). Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak identifikatutako beharrei erantzun nahi zaie.

Jasota utziko da emandako informazioaren konfidentziasuna, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 14. artikulua babesean parlamentariak dokumentazioa eskatzeko duen eskubidearen markoan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00424. Galdera, Nafarroako Ubideko proiektu fotovoltaikoan egindako aurrerabideari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Nafarroako Ubideko proiektu fotovoltaikoan egindako aurrerabideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 28ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak hauxe jakinarazten du, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak idatziz eginitako 11-25/PES-00424 galderari loturik, Nafarroako ubideko proiektu fotovoltaikoan izaniko aurrerabideei dagokienez:

Nasuvinsa sozietate publikoak proiektu horri buruzko zenbait azterketa tekniko eta bideragarritasun-azterketa Nafarroako Industria Elkartearekin lankidetzan egin ondotik, Alaitz mendilerroan 10 kilometroko lehen tarte bat aukeratu zen lehen garapen pilotua egiteko, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren aurrean (Nafarroako Ubidearen jabekidea % 60an, CANASaren bidez) egin zuen jabari publikoaren emakida- eta baimen-eskaera. Oraindik ez du jaso erantzunik eta gaur egun izapidetzen ari dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00425. Galdera, lehendakariak 2025eko ekainaren 12an iragarritako kanpo-auditorien baldintza-agiriari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak ehendakariak 2025eko ekainaren 12an iragarritako kanpo-auditorien baldintza-agiriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 28ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak hauxe jakinarazten du, UPN talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz formulaturiko galderari loturik (11-25/PES-00425):

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren kasuan, eginda eta adjudikatuta dago Navarra Arenako obrei buruzko kanpo auditoretzarako kontratua (4. eta 5. sortak). 15.000 euroan adjudikatu zen (BEZik gabe).

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-25/PES-00425):

- Lehendakariak 2025eko ekainaren 12an iragarri zuen kanpo-auditoriak eginen zirela, egun horretan ezagutu zen UCOnen txostenean agertzen diren enpresei emandako Nafarroako obra publikoen adjudikazioak eta haiekin egindako kontratuak aztertzeko. Taxutu al du jada Nafarroako Gobernuak kanpo-auditoria horien baldintzak, betekizunak eta zehaztapenak jasoko dituen agiria?

Eskaera egin duen parlamentariari PEI-01040 galderarako prestatutako erantzunean adierazi genionez, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura berria onetsi ondotik, Kudeaketa Tekniko eta Administratiboko Zerbitzuari enkargatu zaizkio baldintza-agiriak obra publikoei buruzko kanpo-auditorietzen baldintza, betekizun eta zehaztapenekin idazteko lanak, inpartzialtasun-baldintza handiagoak bermatzeko.

- Abiarazi al da horiek lizitzeko prozedura?

Sortu berria denez, zerbitzu hori horretan ari da lanean, lizitazio-espeditatea ahalik eta lasterren hasteko.

- Zein da zenbateko ekonomikoa?

Oraindik ez da zehaztu lizitazio horren zenbateko ekonomikoa.

- Noiz adjudikatuko direla aurreikusten duzue?

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren Kudeaketa Tekniko eta Administratiboko Zerbitzua baldintza-agiria idazten ari da, kanpo-auditorietzen baldintza, eskakizun eta zehaztapenekin, espeditatea ahalik eta azkarren onesteko.

- Baldintza-agiriak oraindik taxutu ez badira, noiz aurreikusten duzue egonen direla lizitzeko prest?

Lizitazioa ahalik eta lasterren egitea aurreikusten da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna

Hezkuntzako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak idatziz eginiko 11-25-PES-00425 galderari loturik:

Nasuvinsak bere garaian eskatu zituen kanpo-auditorietzek izaniko kostua kontuan hartuta —kontratuetatik bi helarazi ziren Kontuen Ganberara eta Nafarroako Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegora, fiskalizatu zitzaten—, iritzi zitzaien zenbateko txikiko kontratuen araubide bereziaren barnean sartzen zela Arbizuko HLHIParen obra-kontratuaren legezkotasun-txosten baten kontratazioa.

Kontratu Publikoen 2018ko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua ezartzen duenez, zenbateko txikiko kontratutzat joko dira balio zenbatetsia 15.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, zerbitzuen kasuan. Eta horixe da hemen dagokigun kasua.

Halakoetarako, 81. artikulua berak aurreikusten duenez, alde aurreko kreditu erreserba egitea besterik ez da eskatuko, hala egitea beharrezkoa izanez gero kontratazio organoa kide den adjudikazio botereari aplikatu beharrek aurrekontu- eta kontabilitate-araudiarekin bat. Kasuan kasuko faktura aurkeztea ere eskatuko da.

Hala ere, gardentasunaren, lehiaren eta prezioak hobetzearen mesedetan, Espainiako Zinpeko Kontu Auditoreen Institutuarekin harremanetan jarri ginen, interesa zuten enpresa eta entitate guztiei parte hartzeko gonbidapenari buruzko informazioa bidaltzeko. Txostenari objektibotasun handiagoa eman nahi izan zitzaien, eta Administrazioak ez zuen hautatu zuzenean enpresa edo entitatea.

Espainiako Zinpeko Kontu Auditoreen Institutura jo zen, Espainiako zinpeko kontu-auditoreak eta lege aurreikusitako arauen arabera eraturako kontu-auditorietzako sozietateak biltzen dituen erakundea baita. Aldi berean, zuzenbide publikoko korporazio gisa dago aitortuta, eta organikoki Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioari lotuta.

Espainian diharduten kontu-auditorietzako profesionalen eta sozietateen ordezkari da erakunde hori. Gainera, korporazioak bere kideen interesak defendatzen ditu, eta estatuko eta nazioarteko auditorietza-jardueraren garapena eta funtzionamendu egokia zaintzen ditu; era berean, presente dago auditorietza-erakunde nagusietan, eta modu aktiboan parte hartzen du haietan.

Informazio hori bidali zitzaien Espainiako Kontuen Zinpeko Auditoreen Institutuari, gonbidapena bidal ziezaien entitate eta enpresa hauei:

“Kontratuaren objektua: Arbizuko HLHIPa eraikitzea

Lizitazio-prozedura: irekia.

Lizitazio-prezioa: 3.493.830 euro (BEZa barne)

Adjudikazio-prezioa: 3.183.228 euro (BEZa barne)

Azkenean ordaindutako zenbatekoa: 3.317.388 euro (BEZa barne)

Lizitazio-data: 2018/05/04

Obra honen kontratazioaren legezkotasunari buruzko txosten bat eginen zigun entitate bat bilatu genuen, ondoko aldaketak barne. Zehazki, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak adostutako prozeduren arabera, txostena (lanen azken emaitza) hau izanen litzateke (kontuan hartu behar da lizitazio hari orduan indarrean zegoen Kontratu Publikoen ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aplikatu zitzaioa):

PRESTAKUNTZA (II. eta III. tituluak).

Kontratuaren objektuaren definizio egokia eta gauzatzeko epea egiaztatzea. Balio zenbatetsia 24. artikulua arabera kalkulatu dela egiaztatzea.

KONTRATAZIO-MAHAIA ETA PROPOSAMENAK.

Kontratatze baimena egiaztatzea.

Kontratazio-mahaiaren esku-hartzea eta parte-hartzaileak onartzeko eginiko proposamena egiaztatzea (kaudimen teknikoa eta ekonomikoa barne)

1.2 BALDINTZA-AGIRI ARAUTZAILEAK.

Egiaztatzea baldintza-agiriek badituztela baldintza partikularrak, kaudimen-irizpideak, adjudikazio-irizpideak eta preskripzio teknikoak barne.

Adjudikazio-irizpideek arauan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.

Bermeen eraketa egiaztatzea.

1.3 ADJUDIKAZIO PROZEDURAK (II. kapitulu).

Erabilitako prozedurak kasu bakoitzean aplikatzeko aurreikusitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzea: prozedura irekia, prozedura murriztua, prozedura negoziatua, lehia-elkarriketa eta zenbateko txikiena.

Egiaztatzea kontratatutakoaren irismena ez datorrela bat kontratuaren objektua zatikatzearekin, haren zenbatekoa murrizteko eta publikitate-baldintzak edo dagokion adjudikazio-prozedura saihesteko.

1.4 PUBLIZITATEA ETA EPEAK (83.–90. artikulua).

Iragarkia egiaztatzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

Gutxieneko lizitazio-epeak betetzen direla egiaztatzea.

1.5 ADJUDIKATZEA, BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA (91.–97. artikulua).

Parte-hartzaileen onarpena, jasotako eskaintzen balorazioa, kontratuen adjudikazio eta formalizazioa, eta adjudikazioen publikitatea egiaztatzea.

1.6 KONTRATUAK EGIKARITZEA (IV. titulu).

Egikaritzearen berrikuspena, eta epeak eta aldaketak ez ezik ezarritako baldintzak ere betetzen direla egiaztatzea.

Azpikontratazioak egiaztatzea.

Txostenaren gehieneko zenbatekoa 15.000 euro izanen litzateke (BEZik gabe).

10 egun naturaleko epea ematen dizuegu, interesa duten entitateei gonbidapena helarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita, proposamen ekonomikoa posta elektronikoz bidaltzeko (helbide honetara: direcciongeneraldepersonaleinfraestructuras@navarra.es). Zuen zalantzak ere helbide horretara bidaltzen ahal dira. Eskertuko genizueke jakinaraztea noiz bidaltzen den gonbidapena eta entitate guztiei epe eta informazio bera ematea (interesgarria izanen litzazuke bidalketa egiaztatu ahal izatea).

Zenbateko txikiena eskaintzen duen entitateari enkargatuko genioke lana. Berdinketa gertatuz gero, zozketa eginen da gure instalazioetan, eta bertaraten ahalko zarete saio horretara.

Txostena egiteko epea hilabetekoa izanen da, enkargua egin zaion enpresari jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Espedientean gordetzen den dokumentazio guztia digitalizatuta daukagu, eta parte hartu nahi duenaren eskura jartzen dugu. Dokumentazioaren bolumena tamaina horretako obra-kontratu baten ohikoa da”.

Emandako epean eskaintza bakarra aurkeztu zen, Javier Echarri Hernándezek bidalia: 15.000 eurokoa, BEZik gabe.

Lanak abiarazteko epea azaroaren 12an hasi zen, eta 2025eko abenduaren 12an amaitu.

Iruñean, 2025eko abenduaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero foru-parlamentariak eginiko galderari dagokionez, zeina 202506830 irteera-zenbakiarekin baitago erregistratuta (11-25/PES-00425) eta 2025eko azaroaren 24an sartu baitzen Nafarroako Gobernuan:

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak atsegin handiz jakinarazten dizu departamentu honetan López Mañero andreak eskatutakoari loturiko informazio guztia foru-parlamentari berak eginiko eta aurtengo irailaren 26an haren esku jarritako 11-25/PEI-00816 informazio-eskaerari emandako erantzunean agertzen dela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (PES-00425):

2025eko azaroaren 19an, gai horri buruzko informazio-eskaera bat aurkeztu zenuen (11-25/PEI-01040 espedientea).

2025eko abenduaren 2an, ekimen horretan eskatutako informazio guztia eman zen (11-25/PEI-01040), eta jasorik dago idatzizko galdera honetan eginiko galderei erantzuna ematen dien informazio guztia.

Beraz, dagoeneko emana zaizun eta idatzizko galdera honetan egiten dizkiguzun galdera guzti-guztiei erantzuten dien informaziora jotzen dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00426. Galdera, itxaron-zerrenden datuen atzera begirako zuzenketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak itxaron-zerrenden datuen atzera begirako zuzenketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 28ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez

andreak itxaron-zerrendak publikoki aurkezteko modu berriari buruz idatziz erantzuteko eginiko informazio-eskariari loturik (11-25/PES-00426):

Ezinezkoa da teknikoki itxaron-zerrendak berriro kalkulatzeko, ez baita gordetzen pazienteak zer egoeratan zeuden zerrenda kalkulatu zen garaian. 2025eko ekainean itxaron-zerrenda estrukturalaren informazioa ematen hasi zen, 21/2010 Foru Dekretuan adierazten denaren arabera, eta, han, 3. artikuluan, hauxe definitzen da:

a) Itxaronaldi estrukturalan dauden pazienteak. Barnean hartzen ditu une jakin batean asistentzia espezializatuko kontsultan edo proba diagnostiko batean artatuak izateko zain dauden pazienteak, kontuan izanik haien itxaron-denbora Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren antolamenduari eta eskura dauden baliabideei egotz dakiekeela.

b) Itxaronaldi ez-estruturalean dauden pazienteak. Erregistroan une jakin batean sartutako pazienteak, kontuan izanik haien itxaronaldia ez zaiela egozten ahal Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren antolamenduari eta eskura dauden baliabideei, baizik eta hitzorduaren eskaeraren inguruabar bereziei, honako honen arabera:

– Pazientearen borondateari berari egozten ahal zaion atzerapena duten pazienteak (arrazoi pertsonalengatik, lanekoengatik edo nahi duten medikua aukeratzeagatik borondatezko itxaronaldian dauden pazienteak).

– Erregistroan sartutako gainerako pazienteak, kontuan izanik haien hitzordua mediku eskaiztaileak eskatutako data baterako ezarri dela.

Eta I. eranskinean zerrendatzen dira asistentzia espezializatuko lehen kontsulta bermatuta daukaten espezialitateak, arrazoi horregatik ez direnak kontabilizatzen itxaron-zerrendaren argitalpenean 2025eko ekainetik.

Arrazoi horiengatik, ikusirik ezinezkoa dela itxaron-zerrenda birkalkulatzeari, 2025eko ekaineko LeSISNA txostenean jakinarazten zen gutxi gorabehera zer portzentaje zuen itxaron-zerrenda ez-estruturalak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00427. Galdera, Toki-administrazioaren erretiro partzialei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irene Royo Ortín andreak Toki-administrazioaren erretiro partzialei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Irene Royo Ortín andreak interesdunek Nafarroako udaletan eskatutako erretiro partzialen tramitazioari buruz eta toki-administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak egin dizkieten kontsultei emaniko erantzunari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (11-25/PES-00427):

Alde horri loturik eta eginiko galdera bakoitzari erantzun baino lehen, zenbait gogoeta egin behar dira, eta horren ondotik emanen zaio erantzuna

informazio-eskaera izenpetzen duen talde parlamentarioak egindako galdera bakoitzari.

I. Aldez aurreko gogoetak:

1. Administrazio publikoetako langile lan-kontratudunen erretiro partziala, toki-entitateetan dihardutenena barne.

Erretiro pentsioaren eta lanaren arteko bateragarritasuna hobetzeko abenduaren 23ko 11/2024 Errege Lege Dekretuaren bidez, erretiro partziala arautzeko esparru berri bat txertatu zen.

Zehazki, zenbait aldaketa egin ziren Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean eta Langileen Estatutuan, errege lege-dekretu horretako lehenengo artikuluko laugarren eta bosgarren apartatuetan eta bigarren artikuluan xedatutakoaren arabera.

Transkribatutako erregulazio osoak 2025eko apirilaren 1ean hartu zuen indarra, arau horren azken xedapenetako hirugarrenean aurreikusita-koari jarraikiz.

Horren ondorioz, data horretatik aurrera operatibo egon zen Langileen Estatutuaren aplikazio-eremuari lotutako langile guztientzat, eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura diharduten langile lan-kontratudunak, finkoak zein behin-behineko-

ak, ez daude inguruabar horretatik kanpo, ezta Nafarroako toki-entitateetakoak ere, hala ezartzen baitu Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileriaren Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, 1., 3., 94., 95. eta 96. artikuluetan.

Ondorioz, apirilaren 1etik aurrera, edozein udalen zerbitzutan diharduten langileek (edo Nafarroako beste toki-entitateen batekoek, hala nola mankomunitateetakoek) hartzen ahal dute erretiro partziala, baldin eta betetzen badituzte baldintzak eta betetzen badira, berebat, esparru arautzaile berri horretako inguruabarrak.

Esparru arautzaile berri horretan aintzat hartu beharreko baldintzen artean, hauek ageri dira:

i. Errelebolari bat eduki beharra, zeinak lanaldi osoko kontratu mugagabea sinatu beharko baitu, orain indargabetutako erregulazioan aurreikusitako behin-behinekoa (eta partziala, kasuaren arabera) eduki beharrean.

ii. Errelebo-kontratu hori erretiro partziala iraungi ondoko bi urteetan mantendu beharko da.

iii. Errelebo-kontratua langabezian dagoen langile batekin edo enpresarekin iraupen jakin bateko kontratua duen langile batekin hitzartu beharko da.

iv. Errelebolariaren lanpostua ordeztutako langilearen lanpostuaren berdina edo beste bat izaten ahal da, betiere kontuan hartzen bada bien kotizazio-oinarria bat datorrela Gizarte Segurantzaren legeriak dioenarekin.

Erregulazio-berritasun hori 2025eko martxoaren 28ko Ebazpenarekin osatu behar izan zen, zeina Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak eman baitzuen Sektore Publikoan langile finkoak kontratazeari buruzko irizpide orientatzaileei loturik, abenduaren 23ko 11/2024 Errege Lege Dekretuak indarra hartu ondotik.

Orientabide horiek zenbait zalantza argitu zituzten esparru arautzaile berria sektore publikoan aplikatzeari buruz, baita zenbait gairen inguruan sortzen ahal zen segurtasun juridikorik ezari buruz ere. Zehazki:

i. Errelebo-kontratuaren tasunari buruzko zalantzak. Aurreko araubide juridikoak behin-behinekotzat jotzen zuen, eta arau-esparru berriak, berriz, mugagabea izatea eskatzen du; modalitate hori, bestalde, ez dago administrazio publikoetan (langile mugagabe ez-finkoek aparte, zeinak justizia-auzitegiek soilik deklaritzen ahal baitituzte).

Horri dagokionez, ebatzitako irizpideek berretsi egiten dute administrazio publikoen eremuko

tasun finkoa, eta horren barruan ulertu behar dira, hain justu, lan-araudiak oro har errelebo-kontratu mugagabeari egiten dizkion erreferentzia guztiak.

ii. Ildo beretik, argitzen du administrazio publikoetan sinatu beharreko errelebo-kontratua lan-kontratu finkoa izanen dela.

iii. Beharrezkoa da enplegu publikoa eskuratzeko berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak erabat errespetatzen direla bermatzen duten hautaketa-prozesuak egitea, eta lan-arloko legerian aurreikusitakoak ez du murriztu behar enplegu publikoa eskuratzeko aukera prozedura horietan.

Aipamen horrekin agerian gelditzen da errelebolariari langabezia-egoeran (edo iraupen jakineko kontratazioan) egotea eskatzeak zekarren problematika; izan ere, murrizketa hori egikaritzeak enplegu publikoa eskuratzeko konstituzio-printzipioak haustea eragin lezake.

iv. 2025erako birjarpen-tasa espezifiko baterako baimena eskatzeko derrigortasuna, lanpostua enplegu eskaintza publiko batean sartu ahal izateko eta, hala, errelebolaria kontratatu ahal izateko; horrek edozein zalantza argitzen du administrazio publikoetako lanpostuak behin betiko betetzeari dagokionez aurrekontuetan agertzen ahal diren mugei buruz.

Aurrekoa gorabehera, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak 2025eko uztailaren 21eko 14/2025 Kudeaketa Irizpidea eman behar izan zuen, zeinak 10/2025 Irizpidea errepikatzen baitu besteak beste, “ebazpen hori osatzeko —Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak 2025eko martxoaren 28an emaniko Ebazpenari erreferentzia egini— eta arau-aldaketaren ondotik sortzen ahal diren auziak argitzeko...”.

Hemen interesatzen zaigunari dagokionez, 1. apartatuan arrazoitzen du administrazio publikoen esparruan ezinezkoa dela errelebolaria langabezian egotea, horrek kontra egiten baitie Espainiako Konstituzioaren 103.3 artikuluan enplegu publikoa eskuratzeko ezarritako printzipioei, sektore pribatuan enplegua lortzean gertatzen ez den bezala.

Azaldutakoa kontuan izanik, agerikoa da administrazio publikoetako erretiro partzialaren eta errelebo-kontratuaren erregulazio berria:

i. 11/2024 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsi zela, eta zenbait berritasunak txertatu zituela, hala nola errelebolaria langabezian egotea, eta horrek zalantzak sortu zituela administrazio publikoetako langile lan-kontratudunetan aplikatzeari buruz.

ii. 2025eko apirilaren 1ean hartu zuela indarra.

iii. Ukituriko organismo publikoek konpondu behar izan zituztela administrazio publikoetako erretiro partzialaren eta errelebo-kontratuaren espedienteak izapidetzeari buruz sortutako zalantzak, hala nola Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren 2025eko martxoaren 28ko Ebazpenak eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak onetsitako 2025eko 10. eta 14. irizpideek. Horien arabera:

Zehazten da administrazio publikoetan ez dela aplikatzen ahal errelebolaria langabezia egotearen baldintza, eta merezimendu-, gaitasun- eta berdintasun-printzipioetan oinarritutako hautaketa-prozesuak egitea eskatzen da.

2. Nafarroako toki-entitateen zerbitzura diharduten langileen arloko eskumenak: erretiro partziala eta errelebo-kontratua.

Nafarroako Gobernuak ditu toki-administrazioaren alorreko eskumenak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak, Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak eta arau bereziek (adibidez, lurralde-antolamenduari buruzko legeriak) aitortzen dutenez. Eskumen horiek antolaketa-erregelamenduetan zehazten dira (egiturari buruzko foru-dekretuak).

Nafarroako toki-entitateetako langileei dagokieenez, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren barneko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak ez du inolako eskumen erabakitzailearik Nafarroako toki-entitateetako langileen alorrean, aipatutako legeriatik eta Departamentuaren Egituraren Foru Dekretutik ondorioztatzen den bezala, baina bada salbuespen bat: forugaikuntza zehaztea eta ematea hala eskatzen duten lanpostuei (Idazkaritza eta/edo Kontu-hartzailatza), haiekin lankidetzan aritza aholkulari gisa edo toki-entitateen jarduerak kontrolatzea, jarduera horiek Zuzenbidearen aurkakoak direnean eta, gainera, berezkoak ez dituzten eskumenei kalte edo oztopo egiten zaienean.

Hori horrela izanik, Espainiako Konstituzioaren arabera —hura baita toki-autonomiaren printzipioa finkatzen duen gure Ordenamendu Juridikoaren Arau Gorena— eta kontuan harturik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak toki-entitateei esleitutako eskumenak (haietara jo behar dugu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen arabera), toki-entitateek beraiek kudeatu behar dituzte beren giza baliabideak, ematen zaien autoantolaketa-ahalaren adierazpen gisa.

Ondorioz, erretiroari buruzko edozein motatako tokiko langile lan-kontratudunei buruzko udal-espedienteak ez dagozkio Lurralde Kohesiorako Departamentuari (Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia barne), eta ez dagozkio, orobat, Nafarroako Gobernuaren oraingo, aurreko eta etorkizuneko beste departamentu batzuei.

Hori horrela, Nafarroako edozein udaletako organo eta zerbitzuek dute eskumena beren langile lan-kontratudunek eskatzen ahal dituzten erretiro partzialak tramitatzeke eta ebazteke, baita errelebo-kontratuari loturikoetarako ere. Eta Zuzenbidearen arabera egin beharko dute.

3. Lurralde Kohesiorako Departamentuaren barneko Toki Administrazioeko Zuzendaritza Nagusiaren jarduketak Nafarroako toki-entitateen zerbitzura diharduten langile lan-kontratudunen erretiro partzialaren arloan.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzuek ez dute eman horri buruzko irizpenik, toki-entitate partikularren batek eskatutako aholkularitza juridikoaren ondorioz, eta ez dute argitaratu eta/edo bidali jarraibiderik Nafarroako toki-entitateen zerbitzura diharduten langile lan-kontratudunen erretiro partzialak tramitatzeke eta kudeatzeke buruz.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzuek toki-entitate batzuek egiten dituzten kontsultak baino ez dituzte aztertu (hamabi kontsulta inguru, kopuru txikia beste gai batzuekin alderatuta), alkatetzaren edo idazkaritzaren bidez.

Kontsulta-bide hori informala da, eta, logikoa denez, entitateak informazioa eta hausnarketak trukatzean ematen dituen datuetara mugatzen da.

Inork ez du uzten alde batera, bide horretatik kontsultak jasotzen hasi zirenetik —2025eko martxoan hasi eta eta azkenekoak jaso arte—, arau-esparrua aldatu egin dela 2024ko abenduaz geroztik, neurri berriak onetsi ondotik, 2025eko apirilean indarra hartu ondotik eta administrazio publikoen esparruan aplikagarritasuna argitzeko benetan eskudunak diren entitate eta organismoek 2025eko uztailean arte hartu behar izan dituzten ebazpen eta irizpideen ondotik.

Horrek esan nahi du emandako aholkularitza udalek edo berezko langileak dituzten beste toki-entitate batzuek (esate baterako, mankomunitateek) planteatutako zalantzak argitzera mugatu dela, betiere kontuan izanik kontsulta bera egindako egunean aplikatu beharreko esparrua edo gerora izan diren interpretazio-berrikuntzei buruzko infor-

mazioa. Ez da gauza bera udal batek 2025eko apirilean planteatutako gai bati emaniko erantzuna edo 2025eko irailean planteatutako beste bati emandakoa.

Aholkularitzarekin batera, xede horretarako behar zen dokumentazio guztia trukatu da, hala nola zuzenbide publikoko profesionalek sinatutako azterketak —sareko zenbait plataformatan eskuratzeko ahal direnak—, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren Ebazpena eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren irizpideak bidaltzea, baita organo judizialek emandako epaiak ere, erregulazioaren berritasunaz eta horrek iturri horretara jotzeko arazoak konpontzeko izaten ahal duen eragin apalaz harago.

Beraz, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak gauza bakarra egin du: erretiro partziala eta errelebo-kontratua emateko eskatzen ahal diren legezko baldintzak eta izapideak azaldu kontsulta egin dioten toki-entitateei.

II. Planteatutako galdera bakoitzaren erantzuna:

1. Toki Administrazioako Departamentuak ba al daki zenbat pertsona dauden paralisi-egoera horren eraginpean?

Ez. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak ez du Nafarroako edozein toki-entitatean tramitatu ahal izan diren edo tramitatzeko ari diren erretiro partzialeko espedienteen datuen berri, Zuzendaritza Nagusi honek eta Nafarroako Gobernua egituratzen duen zernahi departamentuk ez baitute inolako eskumenik arlo horretan. Eta eskumen falta horren arrazoia da toki-entitateei dagokiela (udalei, besteak beste), erakunde horien zerbitzura diharduten langileak baitira.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileei dagokienez, berebat, ez dugu datu horren berri, departamentu honek ez baitu eskumenik gai horretan; izan ere, Gobernu honetako beste departamentu batzuei dagokie.

2. Zenbat dira Nafarroako udaletan, eta zenbat Nafarroako Gobernuan bertan, araudi berriaren arabera erretiro partziala eskatu dutenak?

Sail honek ez du datu horien berri.

Toki-entitateetako langileak egin dituzten eskaerei dagokienez, lehen adierazitako arrazoiengatik, ez dugu eskumenik gai horretan esku hartzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileei dagokienez, berebat, ez dugu datu horren berri, departamentu honek ez baitu eskumenik gai horretan; izan ere, Gobernu honetako beste departamentu batzuei dagokie.

3. Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren instrukzioa eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren kudeaketa-irizpidea ikusita, zein epetan aurreikusten du Toki Administrazioako Departamentuak blokeo-egoera bideratzea, aipatutako ebazpena eta irizpidea betetz?

Beste behin ere nabarmendu behar da Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentu honek ez duela blokeatu toki-eremuan erretiro partzialen tramiterik; izan ere, orain arte azalduko argudioak errepikatu beharrik gabe, ez du inolako eskumenik alor horretan.

Ildo horretan jarduera bakarra egin da: Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak erantzuna eman die eginiko kontsultei.

Egoera hori ikusirik, Nafarroako toki-entitateek —udalak ere barnean direla— hartu behar izan dituzte beren langileen erretiro partzialaren eskaerak tramitatzeari eta ebazteari buruzko erabakiak.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak bide informalek erantzun die kontsultei une oro, eta entitateak kontsulta planteatu duen unean (data) indarrean den araudi-eta interpretazio-esparrua kontuan hartuta eman dira erantzun horiek.

Agerikoa da hasierako zailtasunen eta zalan-tzen aurrean gertatu den bilakaera, horretarako eskumena duten organismoek (ministerio-organok eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala) ebazpena behar izan baitute.

Hori horrela izanik, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak ez du planifikatu behar jarduketarik, eraginkorra izan baita orain arte erabilitako bidea, eta, toki-entitateei aholkularitza juridikoa emateko eremu guztietan gertatzen den bezala (langileak, funtzionamendua, antolaketa, eskumenak, kontratazio publikoa...), eskuragarri jarraitzen baitu behar duenarentzat: iritzi juridikoak kontrastatzea, araudiari buruzko informazioa edo, are gehiago, toki-entitateek gai partikular horri buruz izaten ahal dituzten zalan-tzak berrestea.

4. Kontuan hartuta jakin dakigun moduan maila guztietako beste administrazio batzuk (...) erretiro partzialak ematen ari direla, argi dago diskriminazio negatiboa gertatzen ari dela Nafarroako admi-

nistrazioetako langile lan-kontratudunentzat. Bidezkotzat jotzen da diskriminazio hori?

Beste behin ere, gogorarazi behar da erretiro partzialaren eskatzailea zein administrazio publikoren mende egon, hari dagokiola espediente horien gaineko eskumena.

Departamentu honek ez du esku hartu, ez baitu eskumenik, Nafarroako toki-entitateek hartutako ezein erabakitan edo erabaki faltatan.

5. Hori horrela izanik, Nafarroako administrazioetako lan-kontratudun langileei kalte egiten ari zaie, eta, unea iristen denean, eta lehen aipatutako diskriminazioa ikusita, kalte-ordainak eskatzen ahalko dituzte. Ebaluatu al duzue zer kostu izan dezakeen ukitutako administrazioentzat (Nafarroako Gobernua eta udalak)?

Beste behin ere, adierazi behar da ez dela ebaluatu inolako kosturik, departamentu honen eskumen-eremutik kanpoko auzia baita, eta, beraz, haren ezein erantzukizunetik kanpoko.

6. Azkenik, Nafarroako udal askok beren indarreko hitzarmen kolektiboetan jasota daukate patronalak erretiro partzialak onartzeko betebeharrak duela, unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera. Hitzarmen kolektibo bat ez bete-

tzeak zehapenak eta ordaina emateko bestelako ebazpen judizialak ekar ditzake, lan-auzitegiek emanak. Ebaluatuta al daude hitzarmen kolektiboak ez betetzearen ondorioak? Are gehiago, administrazio publikoetako langile lan-kontratudunen erretiro partziala aplikatzeari buruzkoa aplikatuta, kendu egiten bada erreleboa hartzen duena alde zuzenetik langabezia egoteko eskakizuna?

Langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiborik aipatzeak, ikusirik entitate bakoitzaren barnean adostu ondotik direla aplikatzekoak, berretsi baino ez du egiten departamentu honen eskumen falta gai horren gainean.

Finean, hitzarmena sinatu duen entitatean egin eta kontsultatu beharko da hitzarmen kolektibo bat ez betetzeak —erretiro partzialaren arloan edo beste edozein arlotan— dituen ondorioen ebaluazioa.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 31n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00428. Galdera, animaliak babesteko kontsulta batzordeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak animaliak babesteko kontsulta batzordeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak informazio hau ematen du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz helarazitako 11-25/PES-00428 galderari loturik:

— Zer egunetan eratu zen animaliak babesteko kontsulta batzordea? Eman kideen zerrenda osoa.

Kontsulta Batzordeko kideak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren 2025eko ekainaren 24ko 183E/2025 Foru Aginduaren bidez

izendatu ziren (abuztuaren 1eko 153. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua). Atxikita dago argitalpenaren esteka: Foru Agindua

— Zer egunetan bildu da animaliak babesteko kontsulta batzordea? Bilerarik egin ez bada, zer egunetarako aurreikusten da urteko bilera?

Laster eginen da eratzeko bilera, nahiz eta horrek ez duen galarazi orain arte harremanetan

egotea Batzordean ordezkatuta dauden erakundeekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00429. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren lan-jardunaldietatik heldu diren proposamenen txostenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren lan-jardunaldietatik heldu diren proposamenen txostenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilariak informazio hauxe ematen du, UPN talde

parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko 11-25/PES-00429 galderari loturik, Klima-aldaketaren Nafarroako herritarren batzarraren lan-jardunaldien ondoriozko proposamenen txostena Parlamentuan aurkezteko aurreikusitako datari buruz:

Aurreikuspenen arabera, Klima-aldaketaren Nafarroako herritarren batzarrak eginiko ondorioen txostena 2025eko abenduaren 16an aurkeztuko da Parlamentuan, 16:30ean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00430. Galdera, Nafarroako enpresen 2024ko kenkari fiskalen zenbatekoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak Nafarroako enpresen 2024ko kenkari fiskalen zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Ana Elizalde Urmeneta andreak eginiko informazio eskaerari dagokionez, zeina 2025eko azaroaren 24an erregistratu baita Nafarroako Parlamentuan 202506946 zenbakiarekin (11-25/PES-00430 esp.):

Jakinarazten dizugu 2023ko zergaldikoak direla Nafarroako Foru Ogasunak egin eta argitaratutako azken estatistikak.

2024ko ekitaldi ekonomikoari buruzko informazioa sozietateen gaineko zergaren estatistiketan egonen da eskuragarri, urtero egiten den bezala, datorren martxotik aurrera, Nafarroako Ogasunaren webgunean (https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Impuestos+ciudades.htm).

Informazio hori estatistika honetan dago eskuragarri: "C9. NAFARROAKO ARAUDIA. APLIKATURIKO HOBARIAK ETA KENKARIAK".

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00431. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren eta Autismoaren Nafarroako Fundazioaren arteko hitzarmenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Hezkuntza Departamentuaren eta Autismoaren Nafarroako Fundazioaren arteko hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hezkuntzako kontseilariak informazio hau ematen du, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00431 galdera idatzari dagokionez:

Hezkuntza Departamentuak, eta, zehazki, Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuak, inguruabar hauek identifikatu zituen Nafarroako hezkuntza-sisteman:

- Autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) duten ikasleen kopuruak gora egin du, eta igoera horrek garrantzi berezia du hezkuntza-sistemako derrigorrezkoen ondoko etapetan.
- Handitu egin da AENA izanik jokabidea egokitzeko zailtasunak dituzten ikasleen kopurua.
- AENA duten ikasle gehienak, jokabidea egokitzeko zailtasunak izan ala ez, ikastetxe arruntetan eskolatzen dira.
- Ikastetxe arruntetan, azken ikasturteetan, egitura berriak sartu dira, Hezkuntzari buruzko

Lege Organikoa aldatzeko Lege Organikoa onetsi eta lege horrek proposatzen duena sartu ondotik.

- Ikastetxe arruntek —eta bereziki hezkuntza-sistemaren derrigorrezko etaparen ondokoak eskaintzen dituztenek— hezkuntza-erronka berri bat dute aurrez aurre, eta horrek behar diren prestakuntza eta lankidetzak eskatzen ditu AENA duten ikasleei hezkuntza-erantzun egokia emateko.

- Irakasleek AENari buruzko informazioa eta prestakuntza eskatzen dute, ikasle horiei ahalik eta arreta onena emateko.

- Familiek AENA duten ikasleen arreta hobetzeko eskatzen dute.

- Hezkuntza bereziko ikastetxeek emaniko baliabideen lehentasunezko ikuspegia, sistemaren egiturei aholkularitza eta laguntza emateko.

- Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan diharduten AEN ikasleek, oro har, ez daukate baliabide pertsonalik esleituta.

- Alegria Fundazioa prest dago Hezkuntza Departamentuari laguntzeko, ikasleentzako, irakasleentzako eta familientzako arreta hobetze aldera.

Egoera horretan, Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzak Zerbitzuak komenigarritzat jotzen du Alegria Fundazioak eginiko lankidetzak proposamena onartzea. Hala, fundazio horren eta Hezkuntza Departamentuaren artean lankidetzak esparru bat ezartzea ahalbidetzen ahal duten aukerak aztertzeari ekin zaio. Aztertutako aukeren artean, erabaki da ONCE Fundazioarekin sinatutakoaren antzeko hitzarmen bat egitea dela tres-

narik egokiena, behar diren berme juridiko eta teknikoak eskaintzeko, AENA duten ikasleei aipatutako eremu guztietan arreta hobetzera bideraturik.

Jarduera horiek abiarazten diren unea bat dator Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroaren zuzendaritzarako deialdi-prozesuarekin, eta, beraz, erabaki da Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzak Zerbitzuak kudeatu behar dituela zuzenean hitzarmena prestatzeko lanak, Hezkuntza Departamentuaren unitate egokien laguntzarekin.

Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroaren zuzendaritza-talde berria 2024ko irailan hasi zen, hitzarmena jada tramitatzen ari zela, eta, beraz, ez zuen parte hartu hura proposatzeko garaian.

Alegria Fundazioarekin formalizatutako hitzarmena sinatu eta publiko egin ondotik, Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroaren zuzendaritzak adierazi zuen ez zegoela konforme eta ados hitzarmen horren edukiarekin, eta hitzarmenaren baldintzak berrikusteko eta hausnartzeko eskatu zuen. Hezkuntza Departamentuak ontzat eman du berrikuspen-proposamen hori, eta, bertan inplikaturako alderdien ekarpenen ondorioz, beste hitzarmen-testu bat egin da aurrekoa ordeztzeko. Proposatutako testu berriak ez du asebetetzen Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroaren zuzendaritza-taldea, eta, beraz, zentroaren buru gisa, dimisioa ematea erabaki du.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00432. Galdera, Herri-lanetako zerbitzuburuak konplexutasun eta zenbateko handieneko obren kontratuen kontratazio-mahaietan sartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Herri-lanetako zerbitzuburuak konplexutasun eta zenbateko handieneko obren kontratuen

kontratazio-mahaietan sartzeari buruzkoa, 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun dakion, Lurralde Kohesiorako Departamentuan kontratazio-mahaiak osatzeari buruz (11-25/PES-00432). Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horren inguruan:

- Lurralde Kohesiorako Departamentuan nork eta nola erabaki zuen Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko hiru zerbitzuetako zuzendaria egonen zirela konplexutasun eta zenbateko handieneko obren kontratuen kontratazio-mahaian, egokiago eta ikuspegi global batekin baloratzeko obren proposamen teknikoak, kontserbazioaren, proiektuen eta obren ikuskera multidiziplinarrak kontuan hartuta?

PEI-01058an helarazitako mezu elektronikoa-
ren arabera, orduko Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak aurreko Lurralde Kohesiorako kontseilariaren proposamena helarazi zuen.

- Nola eta nork jakinarazi zien ukitutakoei eta erabaki horren berri izan behar zuten gainerako pertsonei?

Proposamen hori orduko Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak jakinarazi zuen, idatzitako galdera hori eskaturiko parlamentariari PEI-01058an helarazi zitzaion mezu elektronikoa-
ren bidez.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00433. Galdera, “Hiri Zirkularra” proiektuari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak “Hiri Zirkularra” proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-
tako kontseilariak informazio hau ematen du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galderari loturik (11-25/PES-00433):

Nafarroako Gobernuak Hiri Zirkularren proiektuaren hasierako planteamendua defendatu zuen Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren aurrean, bai eta Herri-lan, Garraio eta Ingurumen Ministe-

rioren Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiaren aurrean ere; hala, proiektu horri eta beste batzuei buruzko proposamen-fitxa helarazi zien, suspertze- eta erresilientzia mekanismoren bat edo suspertze eta eraldatze ekonomikorako proiektu estrategikoren bat aktibatuko balitz ere.

Alabaina, Hiri Zirkularren kasu zehatzean, ez zen gauzatu Next Generation programaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan horrelako proiektu batek parte hartu ahal izateko moduko deialdi edo finantza-tresna espezifikorik.

Horrenbestez, ez zen egin inolako administrazio-izapiderik finantzaketa onartzeko edo ukatzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00434. Galdera, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikulua 2 b) apartatuan ezarritako murrizketak aplikatzeko datari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikulua 2 b) apartatuan ezarritako murrizketak aplikatzeko datari buruzkoa, 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-ren 215. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak eginiko galderari dagokionez, zeina 202507009 irteera-zenbakiarekin baitago erregistratuta (11-25/PES-00434) eta azaroaren 26an sartu baitzen:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak atseginez adierazten dizu kontsiderazio hauek eginen direla, informazio-eske honi erantzuteko dagokion zerga-esparruarekin bat:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikulua 2. apartatuaren b) letraren egungo idazketak hau aurreikusten du, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

2. Aurreko apartatuan xedatutakoari jarraituz kalkulaturako etekin garbi positibotik honako murrizketak eginen dira:

b) Ehuneko 50, baldin eta etxebizitza tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde batean kokatuta egotearekin batera, etekina badator

etxebizitza iraunkorrerako errentamendutik, zeina arautzen baita Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan. Ondorio horietarako, gelakako errentamenduak ez dira barne hartzen.

Bigarren apartatu honetan ezarritako murriztapenak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izanen da errentamendu kontratua behar bezala erregistratuta egotea Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan, zeina aurreikusita baitago Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 90. artikuluan.

Aipaturiko erregistroa Etxebizitzako zuzendari nagusiak emaniko martxoaren 30eko 182/2023 Ebazpenaren bidez jarri zen martxan.

Era berean, hauxe ezartzen du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren hogeita hamargarren xedapen gehigarriak, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

Lege honen 25.2.a) artikulua bigarren paragrafoan eta 25.2.b) artikuluan hurrenez hurren ezarritako ehuneko 90eko eta ehuneko 50eko murriztapenak ez dira aplikatuko tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeak deklaratu eta argitaratu diren zergaldira arte.

Bestalde, 2025eko ekainaren 13an Foru Agindu hau argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (157E/2025 Foru Agindua, maiatzaren 19koa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emana, zehazten duena zein zonak eratzten duten Nafarroan bizitegi-merkatu tentsionatua.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00435. Galdera, Espainiako Gobernua beken eskumena lagatzearen aurka egoteko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Espainiako Gobernua beken eskumena lagatzearen aurka egoteko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (PES-00435):

Espainiako Gobernua ez dago beken arloko eginkizunak eta zerbitzuak Nafarroako Gobernuari lagatzearen aurka. Orain arte, ez da lortu akordiorik transferitu beharreko funtzio eta zerbitzu guztietan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00436. Galdera, BAI fundazioaren eta BAI programaren finantzaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak BAI fundazioaren eta BAI programaren finantzaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak BAI fundazioaren finantzaketari buruz idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (PES-11-25/00436):

Nafarroako Gobernuak 300.000 €-rekin finantzatzen du urtero BAI Fundazioa: robotika eta eraikuntzaren eta arkitekturaren industrializazioa garatzea.

Finantzaketa hori 2024an eta 2025ean jarduerak egiteko dirulaguntza arautzen duen azaroaren 7ko 291E/2024 Ebazpenean eta 2025ean eta 2026an jarduerak egiteko dirulaguntza arautzen duen azaroaren 24ko 296E/2025 Ebazpenean dago jasota.

Nafarroako Gobernuak BAI Zentroaren prestakuntza-eskaintza prestatzeko eta hedatzeko lokalen alokairua finantzatzen du, baita zenbait ikastarotarako lizentzien, ekipamendu-alokairuen edo makineria espezifikoen gastuak ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 31n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00437. Galdera, hezkuntza-laguntzako espezialistak kontrata-tzeari eta formakuntza euskaraz emateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeari eta formakuntza euskaraz emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00437 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak zenbait jarduera egin ditu hezkuntza-laguntzako langile espezialisten euskarazko prestakuntza ahalbidetzeko:

– Inprimaki bat egin da hezkuntza-laguntzako espezialisten euskarazko prestakuntza-beharrak biltzeko.

– Formulario hori ikastetxeetara bidali zen, kolektiboari helarazteko eta haien interesa eta beharrak jasotzeko.

– Jarraian, Euskarabidearekin harremanetan jarri gara, eta prestakuntza premietan eta bideragarritasunean oinarrituta konfiguratzeko prozesuan gaude, aukera posibleetatik abiatu eta premia horri erantzuteko.

Bestalde, prestakuntza horretarako balizko ikasleei eta prestakuntza-mailei buruz eskatzen diren datuak helarazten dira. 65 pertsonak erantzun diote formulario horri, eta 50 kasutan prestakuntza jasotzeko interesa agertu dute. Erantzun horietatik 21 lagun A1 mailan egonen liriteke interesatuta, 5 pertsona A2 mailan, 5 lagun B1 mailan, 5 lagun B2 mailan eta 13 pertsona, azkenik, C1 mailan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-000438. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako ibilgailuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako ibilgailuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriaro eta Migrazio Politiketako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko egini-ko galderari loturik, Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako ibilgailuen eta haien erabilerari buruz (11-25/PES-00438):

Nafarroako Gazteriaren Institutuak Nafarroako Gobernuaren ibilgailuen ataleko ibilgailu bat du, bere zerbitzura atxikita.

Prozedura bati jarraikiz erabiltzen da: aldez aurretik erreserba bat egin behar da erabiltzeko, eta, era berean, erabilerari buruzko datuak jasotzen dira, hala nola erabiltzailea, destinoa, kilometrajea eta, kasuaren arabera, botatako erregaia.

Ibilgailu hori Nafarroako Gazteriaren Institutuko langileek eta "Fuerte del Príncipe" kirol-egoitzakoek erabili ohi dute. Era berean, Nafarroako Gobernuko beste unitate batzuek ere erabiltzen dute noizean behin, Institutuari eskatu ondotik.

Zerbitzua dela-eta joan-etorriak egin behar dituzten Nafarroako Gazteriaren Institutuko langile guztiek erabiltzen dute ibilgailua, baita zuzenda-

riek ere, prozedura berari jarraituz eta baldintza berberetan.

Azkenik, ez dago jasota ibilgailu hori erabilera pertsonalerako baliatu denik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00439. Galdera, Kulturako Lanbideen Legean eta Artistaren Estatutuan egindako aurrerabideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Kulturako Lanbideen Legean eta Artistaren Estatutuan egindako aurrerabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-25/PES-00439 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2024ko urriaren 31n Kulturaren Lanbideen Legearen egutegiari eta Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitzeari buruz onetsitako mozioari dagokionez, jakinarazten dugu lan horiek esparru zabalago baten barruan ari direla garatzen: kultura-sektorea profesionalizatzeko estrategiari loturik, zeina Nafarroako Kulturaren 2024-2028 aldirako Plan Estrategikoan baitago aurreikusita.

Ikuspegi horri esker, kultura-azpisektoreetako (musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak,

ondarea, kultura-bitartekaritza edo sorkuntza garai-kidea) lan-, prestakuntza- eta zerga-errealitateen aniztasunari erantzun ahal zaio, eta, horrenbestez, azterketa zorrotza egin behar da aldez aurretik, etorkizuneko arau-erabakiak eta erabaki espezifikoak behar bezala oinarritzeko.

Testuinguru horretan, Vianako Printzea Era-kundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia txosten tekniko bat prestatzen ari da, Nafarroan lanbide artistikoa arautzeko gakoak hizpide harturik, zeina oinarritzeko dokumentu gisa pentsatua baita Kulturako Lanbideei buruzko etorkizuneko Legea egiteko eta Artistaren Estatutu Foru Komunitatera egokitzeko. Txosten horrek modu egituratuan jorratzen ditu zenbait alderdi, Nafarroak kulturaren eta hezkuntza zein prestakuntzan dituen eskumenei, besteren konturako eta norberaren konturako lanari, mezenasgoari, jabetza intelektualari, esku-bide kolektiboari, lan-arriskuen prebentzioari eta sektoreari aplikatu beharreko zerga neurriei dagokienez.

Aitortzen dugu txosten hori egiteko epe luzeagoa behar izan dela hasieran aurreikusitakoa baino, haren edukia Nafarroako Kulturaren 2024-2028 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko dispositiboarekin ari baitira kontrastatzen eta alderatzen, bereziki 2024-2025 aldiari dagokion urteko jarraipen txostenarekin, diagnostikoaren, neurrien eta ebaluazioaren arteko koherentzia bermatzeko. Horregatik, hasiera

batean 2025aren amaieran aurkeztea bazegoen ere aurreikusita, 2026ko lehen hiruhilekoan aurkeztea da egungo aurreikuspena eta gure nahia.

Aldi horretan, orobat, kontuan hartu dira egoera profesionalak, bai eta lan-baldintzak eta baldintza profesionalak aitortzea eta hobetzea ere, Nafarroako kulturaren esparruan garatzen ari diren eta gure eskumenekoak diren plan, prozesu eta arau-esparruetan. Esate baterako, gogoeta horiek zenbait lanetan txertatu dira, hala nola Arkeologiako Plan Estrategikoan, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Legearen aurreproiektuan, azken urteotan hartutako neurri fiskaletan —bereziki ikus-entzunezkoen, musikaren eta zuzeneko arteen sektorearekin lotuta—, bai eta Uharteko Arte Garaikideko Zentron eta beste zenbait fundaziotan onetsirik enpresa-hitzarmen edo -akordioetan ere. Berebat, kontuan hartu dira Kulturako Zuzendaritza Nagusiak sustatu-

tako zuzendaritza artistikoen lizitazioetan, 2025-2027 aldirako Dirulaguntzen Planean eta Nafarroako liburutegi publikoetan zerbitzuak ematen dituzten langileen egoera aztertzean, besteak beste. Duten garrantzia ikusirik, ez ditugu ahaztu behar toki-entitateek bultzatutako beste ekintza batzuk ere, hala nola udalen arteko kudeaketa-hitzarmena, Nafarroako toki-administrazioetan kultura-teknikariak kontratatzeko zerrenda bat sortzeko deialdiari dago-kiona.

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00440. Galdera, bide-seinaleen errotulazio linguistikoa ezartzeko protokoloari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak bide-seinaleen errotulazio linguistikoa ezartzeko protokoloari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik, Nafarroako Gobernuak bide-seinale berrien hizkuntza-errotulazioa zehazteko duen protokoloari dagokionez (11-25/PES-00440):

– Nafarroako Gobernuak zer protokolo darabil paratu behar diren bide-seinale berrien errotulazio linguistikoa ezartzeko?

Nafarroako Gobernua arau hauetan oinarritzen da paratu behar diren bide-seinale berrien errotulazio linguistikoa ezartzeko:

Bide-errotulazioa.

- 103/2017 Foru Dekretua, Azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan.

I. KAPITULUA. Hizkuntza-eremuak. 1. atala. Eremu euskalduna

10. artikulua. Irudia, oharrak eta argitalpenak.

1. Eremu euskaldunean dauden administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, ele biz idatziko dira bulego eta egoitzetako errotuluak, materialen, uniformeen eta ibilgailuen errotuluak, inprimaki eta agirietako izenburuak edo idazpuruak, zigilu ofizialak eta identifikaziorako eta seinaleztapenerako edozein elementu.

IV. KAPITULUA. Lanbidean aritzeko hizkuntza-gaitasuna

41. artikulua. Lanbidean aritzeko hizkuntza-gaitasuna.

Lehen xedapen gehigarria. Ele biko idazketaren alderdi formalak.

2. Bereziki errotulazioari dagokionez, ele biko testuek bi hizkuntzetan tamaina eta ikusgarritasun bera izanen dute. Testua bi zutabetan idazten bada, ezkerrean euskarazkoa eta eskuinean gaztelaniazkoa jarriko dira. Testua goitik behera idazten bada, goialdean euskarazko testua jarriko da eta behealdean gaztelaniazkoa.

3. Eremu euskalduneko eta mistoko Nafarroako Foru Komunitateko errepide sareko bide-seinaleetako informazio-elementuei dagokionez, xedapen honetako bigarren apartatuko irizpideari jarraituko zaio; eremu ez-euskalduneko paratutako elementuetan, bestalde, ezkerrean gaztelaniazko testua eta eskuinean euskarazkoa jarriko dira. Testua goitik behera idazten bada, goialdean gaztelaniazko testua jarriko da eta behealdean euskarazkoa.

Bizigune-izenen errotulazioa.

Bizigune-izenei dagokionez, onetsita daudenak baliatuko dira bizigunea adierazten duen kartela edo gezia egitean, Gobernu Erabakiaren bidez onztat emandako nomenklaturarekin eta Nafarroako Gobernuaren Toki Entitateen Erregistroan ezarritako izendapen ofizialari jarraikiz.

- 5/2018 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Gobernuak hartua, irizpideak ezartzen dituena Nafarroako biziguneen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko.

- 8.1-IC araua, "Seinaleztapen bertikala", Errepideen instrukzioarena.

Seinaleztapenari dagokionez, errepideen arau teknikoak ezartzen du atzerriko herrien izenak gaztelania hutsean idatziko direla, gaztelaniazko izena baldin badute; bestela, beren herrialdeko hizkuntzan.

- 18/2021 Legea, abenduaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen baita trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu bategina (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) puntuko gidabaimenaren eta gidalizentziaren arloan.

56. artikulua. Hizkuntza.

Bide publikoetako seinaleztapen-paneletan sartzen diren edo haiekin batera jartzen diren argi-bide idatziak eta inskripzioak, gaztelaniaz ez ezik, dagokien autonomia-erkidegoko autonomia-estatuan onartutako hizkuntza ofizialean ere idatziko

dira, baldin eta seinalea erkidego horretako lurralde-eremuan badago.

- Euskaltzaindiaren 38. araua – "Munduko estatuak"

Agiri horrek herrialde eta lurraldeen izenak euskaraz idazteko araudia ezartzen du, eta Euskaltzaindiak baimendutako eta estandarizatutako formak eskaintzen ditu, aldaerak barne —halakorik denean—, haren nazio eta eskualdeetarako toponimo-zerrendan ikusten den bezala.

– Nafarroako Gobernuak zer protokolo darabil jada paratuta dauden bide-seinaleen errotulazio lingüistikoa ordeztzeko edo berritzeko?

Denboraren joanarekin errotulazioa hondatzen denean edo plakak ez badu islatzen, berriro egiten dira kartelak, betiere bizigune-izenak eguneraturik, aipaturiko zerrendari jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak eutsi egiten dio konpromisoari, eta, hizkuntza-politikari dagokionez, indarrean dagoen araudiari erantzuten dion lan-ildoarekin segitzen du.

Horretaz gainera, kontuan izanda trafiko seinaleak elementu garestiak direla eta kalitate estandar eta homologazio jakin batzuen arabera fabrikatzen direla, baliabideen ekonomiaren, baliabideen erabilera jasangarriaren eta altxor publikoaren zaintzearen mesedetan, Zainketa Zerbitzuaren jarraibidea da trafikoko seinale edo kartelak narriatzen direnean ordeztea —salbuespena bandalismoaren ondorioz hondatutako kartelena da—.

Kasu horretan, bandalizatutako kartelak testu berarekin errotulatuko dira, nahiz eta ez izan Gobernu Erabakiaren bidez onetsitako azken udal-erri-izena; izan ere, horrela saihestu egiten da ekin-tza bandalikoaren bidez lortu ahal izatea lehendik dauden seinaleak optimizatzeari ez dagokiena.

Azkenik, Nafarroako Errepide Sareko seinaletikari dagokionez, berretsi egiten dugu hizkuntza-politikarekiko konpromisoa, eta, beraz, indarrean dagoen araudia aplikatzea, Euskaltzaindiak ezarritakoa kontuan hartuta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00441. Galdera, toki-entitateen eta autonomia-erkidegoen inbertsio-jarduerari laguntzeko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 2ko 15/5025 Errege Lege-dekretua Nafarroan aplikatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunaK egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, toki-entitateen eta autonomia-erkidegoen inbertsio-jarduerari laguntzeko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 2ko 15/5025 Errege Lege-dekretua Nafarroan aplikatzeari buruzkoa, 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak hauxe jakinarazten du, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Adolfo Araiz Flamarique foru-parlamentari jaunak idatziz eskaturiko galderari loturik, Toki-entitateen eta autonomia-erkidegoen inbertsio-jarduerari bultzatzeko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 2ko 15/2025 Errege Lege Dekretua Nafarroan aplikatzeari dagokionez (11-25/PES-00441):

Gobernuaren ustez, Nafarroan zuzenean aplikatzekoa al da 13/2025 Errege Lege-dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoa, autonomia-erkidegoen 2024ko aurrekontu-superabita bideratzeko arau bereziei dagokionez?

Errege lege-dekretu horren 2. artikulua aurreikusten du Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta hamaseigarren xedapen gehigarrian jasotako arau bereziak aplikatzea, 2024ko aurrekontu-superabitari dagokionez.

116. xedapen gehigarri horrek salbuetsi egiten du aurrekontu-superabita aplikatzeetik baldintza jakin batzuetan, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikulua definitzen duen moduan.

Aipaturiko lege organiko hori oinarrizko araua da administrazio publiko guztientzat; hala ere, azken xedapenetako hirugarreneko 1. apartatuak ezartzen du Foru Komunitateari aplikatzeko kon-

tuan hartu behar dela foru-araubidea —Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 64. artikuluan ezarritakoaren arabera—, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoari jarraikiz.

Beraz, esparru horretan gauzatzen da hemen dagokigun errege lege-dekretuan araututako neurriak Foru Komunitatean aplikatzea.

Zein izan zen Nafarroako aurrekontu-superabita 2026ko ekitaldian?

Irizten diogu akats bat dagoela galderaren formulazioan, eta 2024ko ekitaldiko superabitaz ari dela.

Estatuko Kontu Hartzailtza Nagusiak 2025eko azaroan argitaratutako azken datuen arabera (behin-behineko datuak), 2024an Foru Komunitateak 271 milioi euroko finantzaketa ahalmena izanen du SEC2010i dagokionez; hau da, Foru Komunitatearen barne-produktu gordinaren % 1,02.

Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak inbertsio-plan finantzarioki jasangarriren bat aurkezte 2024ko superabit horren zati baten kargura?

Nafarroako Gobernuak 2024ko urriaren 11ko bileran onetsi zuen 2025eko inbertsio-programa bat, gastu orokorren diruzaintza-geldikinarekin kontura finantzatzekoa eta ekitaldi bakoitzerako esku-ragarri, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan biltzeko ekitaldi bakoitzean (2025, 2026 eta 2027), guztira 125.370.500 euroko zenbatekoarekin.

Nafarroako 2025erako Aurrekontu Orokorren 19/2024 Foru Legeak 67.139.000 euro sartzea ezarri zuen 80. artikuluan, 2025eko Inbertsio Programan jasotako inbertsio jakin batzuetarako. Eta, era berean, Nafarroako 2026rako Aurrekontu Orokorren 16/2025 Foru Legearen 80. artikuluan 43.766.500 euro gehitzea aurreikusten da. Bi kasuetan, xedapen honetan jasotako zehaztapenekin lotuta sortzen ahal diren gaiak Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean arautuko eta interpretatuko direla aurreikusten da.

Horri dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatearen 2025-2027 aldirako Aurrekontu Egonkortasuneko eta Zor Publikoko helburuak onesten

dituen Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen 2025eko otsailaren 13ko 1/2025 Aktaren hamabosgarren erabakiak eta XIV. eranskinak hauxe ezartzen dute hirugarren apartatuan:

Hirugarrena. 2025-2027 inbertsio-programa.

Egindako sendotze ahalegina eta finantza-egoera sendoa kontuan hartuta, Foru Komunitateak bere barne-produktu gordinaren % 0,4aren baliokidea den 2024ko superabitaren zenbateko bat bideratuko du inbertsioak finantzatzeko, kontuan izanik inbertsio horiek Europar Batasunaren lehentasun komunei laguntzen dietela, besteak beste, trantsizio ekologikoari eta digitalari, erresilientzia sozial eta ekonomikoari eta eskubide sozialen Europako oinarria aplikatzeari, barnean harturik hemendik 2030era arte enpleguaren, gaitasunen eta pobrezia murriztearen arloko helburuak eta segurtasun ener-

getikoa, zeinek finantzarioki jasangarriak izan behar baitute inbertsioaren bizitza baliagarrian zehar.

Azkenean aplikatzekoak diren lege-arauen arabera, inbertsio horiek ez dira zenbatuko Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan zehaztutako gastu-araua aplikatzeko, ezta lege organiko horren 32. artikuluan ezarritakoa betetzeko ere, aurrekontu-superabitaren xedeari dagokionez.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00442. Galdera, Osasunbideko kudeatzaile berriaren hautaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Osasunbideko kudeatzaile berriaren hautaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, María Teresa Nosti Izquierdo atxiki gabeko foru-parlamentariak idatziz erantzuteko galderari loturik (11-25/PES-00442):

Osasuneko sailburua naizen aldetik, nire zereginetako bat da erakundeko postu nagusiak beteko dituen talde bat sortzea, "goi-karguak" deiturikoa. Osasun Departamentuaren kasuan, hona hemen karguak: Osasuneko zuzendari nagusia, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gerentea, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendaria eta Osasun Kabineteko zuzendaria.

Joan den urriaren 21ean Osasunbideko aurreko gerenteak kargua utzi ondotik, astebete geroago jakinarazi zen Jon Guajardo doktoreak hartuko zuela haren tokia, hura izendatu baitzuten ardura eta konfiantzazko kargu hori betetzeko.

Zenbait irizpide eta arrazoirengatik, erabaki zen pertsona egokia zela postu horretarako. Lehenik eta behin, osasun-kudeaketan duen esperientzia zabalagatik, haren curriculumak egiaztatzen baititu lan gaitasuna eta arlo sanitarioarekiko ardura. Guajardo doktoreak 30 urte baino gehiago daramatza osasun-kudeaketan, gehienbat Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. Zenbait lanbide-etapatan, kargu hauek bete ditu: Basurtuko Ospitaleko zuzendariorde medikoa eta Pazienteei Arreta Emateko Unitateko eta Pazienteak Kudeatzeko Arloaren burua; Galdakao-Usansoloko Ospitaleko zuzendari medikoa; Zumarragako Ospitaleko zuzendaria; Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko gerentearen albokoa; Galdakao-Usansoloko Ospitaleko gerentea —aurretik zuzendari mediko gisa aritua 2003tik 2009ra bitartean—; eta 11 urtez Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari-gerente aritu zen, hots, Euskal Osasun Zerbitzuko eremu handienetako batean. Azkenik, 2025etik aurtengo azarora arte, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuaren arduraduna izan da.

Bigarrenik, kontuan hartu zen Osasun Kudeaketaren arloko aitortpen nazionala ere, Osasun Zuzendarien Espainiako Elkartearen (SEDISA) parte aktibo izan baitzen. Sozietate horretako bigarren lehendakariordea izan zen 2024ra arte, eta orain batzordekidea da. Aitortza horri arloko zenbait lankidek eman zioten abala, eta elkarrizketa bat baino gehiago izan nituen haiekin hura izendatu aurretik.

Hirugarrenik, berme gisa hartu ziren Guajardo doktoreak bere karreraren bete dituen postuekin izaniko konpromiso handia eta horren balioa, eta, harekin arlo desberdinetan lanean aritu diren pertsonen informazioa eskatu ondotik, guztiak bat etorri ziren haren gaitasunari eta enpatiari balioa ematean.

Laugarrenik, bere ibilbideak sentsibilitate, enpatia eta zerbitzu-bokazio handia ageri ditu boluntario gisa eta lankidetzaren misioetan egindako lanei esker —batez ere Etiopia aldean—. Gai hori ez da teknikoa, baina bai pertsonala, eta indartu egiten ditu hautagaiaren gaitasunak eta interesak, herrialde behartsuenetan osasun ona izateko eskubidea zabaltzera bideratuak.

Azkenik, pertsonaren egokitasuna ebaluatzeko Iruñean pertsonalki izandako elkarrizketan, curriculum harago, erakutsi zuen ulertzen dituela osasun-sistemak une honetan bizi dituen erronkak, ez bakarrik Nafarroan, baita Osasun Sistema Nazional osoan ere, eta iritzi zitzaion gai zela horiei guztiei aurre egiteko. Aldi berean, erakutsi zuen enpatiaz jokatzeko duela lankide izaniko jendearekin, zenbait bilera egin baitziren Osasun Saileko eta Osasunbideko pertsonekin.

Beraz, esaten ahal da esperientzia, gaitasunak, ezaugarri pertsonalak, ezagutzak eta bere zeregin ongi betetzeko beharrezkoak diren trebetasunak hartu zirela kontuan Jon Guajardo doktorea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren gerente lanposturako egokitzat jotzeko irizpideetan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00443. Galdera, kalean bizi diren pertsonen buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak kalean bizi diren pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguaren kontseilariak hauke jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-25/PES-00443):

Oso konplexua da etxerik gabeko pertsonak —hau da, gaua kalean igarotzen dutenak— zenbatestea eta haien ezaugarriak zehaztea. Sistema eta metodologia bat baino gehiago daude hurbilketa bat egiteko; horien artean ageri dira, esaterako, EINen inkesta ofizialak (Etxerik gabeko pertsonen buruzko aldizkako Inkesta eta Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuei buruzko bi urtez behingo Inkesta).

Foru Komunitatean egin zen egoeraren diagnostiko bat, Nafarroan etxerik gabeko pertsonak artatzeko Bide Orria egiteko lanaren esparruan, hurbilketa horiek kontuan hartuta.

Bestalde, Eskubide Sozialen Ministerioarekin eta Iruñeko eta Tuterako Udalekin lankidetzan, gaueko zenbaketak ere egin dira; hau da, etxerik gabeko pertsonak zenbatzea lurralde jakin batean gau-partean.

2023an eginiko azken zenbaketan, 137 pertsona kontatu ziren etxegabetasun-egoeran Iruñean (kalean, aterpetxeetan, beste zentro kolektibo batzuetan, pisuetan eta housing firstean), eta beste 14 Tuteran (dokumenturako esteka erantsi da <https://www.sis.net/documentos/ficha/598002.pdf>).

Etixerik gabe kalean bizi diren adingabeen inguruko galderari dagokionez, adierazi behar da ez dagoela adingaberik egoera horretan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00444. Galdera, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen urraketak direla-eta hartutako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen urraketak direla-eta hartutako neurriei buruzkoa, 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00444 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Iruñerriko Mankomunitateari hondakinak kudeatzearekin loturik abiarazitako espedientei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Zer neurri hartu du Nafarroako Gobernuak ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen foru legea ez betetzearen aurrean?

Aranguren udalerriko hondakin arriskugabeen zabortegeak eta hondakinak sailkatzeko instalazioak (GONGORAKO HHTZ) badu ingurumen-baimen integratua, eta Servicios de la Comarca de Pamplona SA merkataritza-sozietatea da haren titularra.

<https://extra.navarra.es/InformacionPublicaPRTR/CentroPublicaciones.html#/CentroPublicaciones>

Aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera, departamentu honi dagokio kautelazko neurriak ez ezik kontrol- eta ikuskapen-neurriak ere hartzea, bai eta zehatzeko ahala baliatzea ere.

942E/2022 Foru Agindua, urriaren 4koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroako Industria Jardueraren Ingurumen Ikuskapeneko 2023-2026 Plana onesten duena. Plan horretan azpiprograma espezifiko bat sartzen da zabortege aktibo eta itxientzat.

Eta 98E/2025 Foru Agindua, martxoaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko industria jardueraren ingurumen ikuskapeneko 2025eko programa onesten duena

Esteka honetan lortzen ahal da ingurumen-ikusketako programari buruzko informazio guztia:

<https://www.navarra.es/eu/medio-ambiente/inspecciones-y-control-ambiental>

Aurrekoaren arabera, urtean bi ikuskapen-bisita egiten dira instalaziora.

Instalaziora egiten diren bisitekin bat etorritik, instalazioaren titularrari eskatzen zaio ezen, ikuskapenean egiaztatutako ez-betetzeengatik egoki izaten ahal diren zehapen-prozedurak ezertan eragotzi gabe, instalazioaren titularrak edo, kasuak hala eskatzen badu, enpresa ustiatzaileak gauza ditzala

ikuskapen-txostenetan adierazitako ekintzak ezarritako epeen barnean, ingurumen-baimenean ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko.

Horretaz gainera, zehatzeko ahala baliatu da, aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoari jarraikiz.

Zer eragin du horretan Imarkoingo Tratamendu Zentroa martxan jartzeko atzerapenak?

Imarkoingo Tratamendu Zentroa martxan jartzeko atzerapenak instalazioaren gabezia handienari eragiten dio, hau da, zaborteziaren ontzian tratatu gabeko hondakinak uzten direla, eta, utzitako hondakinen artean, material birziklagarria ageri dela. Horrek esan nahi du zaborteziaren hondakin biodegradagarrien ehunekoak gaitu egiten duela Hondakinak zaborteziaren utziz deuseztatzeko jardura arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 8.2 artikuluen helburua.

Nafarroako Gobernuak zergatik arintzen dizkio isunak Iruñerriko Mankomunitateari hondakinen kudeaketari buruzko espedienteetan?

Lehenik eta behin, adierazi behar da instalazioaren titularra Servicios de la Comarca de Pamplona SA denez, zehapen-espedienteak sozietate horren aurka abiarazten direla, eta ez Iruñerriko Mankomunitatearen aurka.

Bigarrenik, nabarmendu behar da Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak zehapen-espedientea abiarazteko proposamena egin duela akatsak antzeman dituen ikuskapen-bisita baten ondotik.

Proposamen hari jarraikiz, zehapen-espediente bat ireki zen, eta, antzemandako akatsen eta aplikatu beharreko araudiaren arabera, isun bat ezartzea proposatu zen zehapen gisa. Ohikoa da zehapen-prozedura izapidetzen den bitartean alegazioak aurkeztea eta departamentuko teknikariek

eta legelariak horiek aztertu eta baloratzea. Espedientea tramitatu ondotik, instrukzio-egileak ebazpen-proposamen arrazoitu bat egin du, eta gerta liteke proposatzen den isun-zehapena txikiagoa izatea hasieran proposatu zenaren aldean.

Hori da gertatu dena, hain justu, erreferentziako 0002-SAMA-2022-000040 prozeduran. Lehenik eta behin argitaratu zen 776E/2022 Ebazpena, abuztuaren 9koa, Ingurumeneko zuzendariak emana, 200.000 euroko isuna jartzea proposatzen duen prozedura abiarazten duena (maila maximoan), eta, azkenik, 699E/2023 Ebazpena, 2023ko uztailaren 14koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, Servicios de la Comarca de Pamplona SA enpresari 160.000 euroko isuna ezartzen diona, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen aurkako arau-hauste astun bat egitearen arduradun izateagatik.

Hasiera batean proposatutako zehapena murriztea inguruabar aringarri bat gertatzen dela baiestearen ondorioa da; hain zuzen ere, arau-haustearen ondorio kaltegarriak arintzen saiatzen diren neurriak hartzean datzana.

Adierazi behar da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren 2024ko apirilaren 12ko 91E/2024 Foru Aginduaren bidez ezetsi egiten dela ebazpen horren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa, eta foru-agindu hori berretsi egin dela Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2025eko irailaren 30eko 262/2025 Epaia bidez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrera

11-25/PES-00445. Galdera, ospitaletik irten ondotik berriz ere kalean bizi behar den adingabeekiko familiaren egoerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak ospitaletik irten ondotik berriz ere kalean bizi behar den adingabeekiko familiaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-25/PES-00445):

Galdera horri dagokionez, adierazi behar da toki-entitateei dagokiela bazterketa sozialeko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen presako

harrera eta berehalako arreta ematea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26. artikulua eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 30. artikulua aplikatuta. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak hartu beharko luke adingabeen arreta bere gain, adingabeen egoera edo arriskua detektatu eta jakinaraziko balitz.

Adierazi behar da, orobat, departamentu hau buru-belarri ari dela lanean askotariko toki-entitateekin eta, bereziki Iruñeko Udalarekin (hark artatzen baititu kasu gehien) egoera horiei heltze aldera, eta, ildo horretatik, dauden baliabide arruntetarako finantzaketa areagotu da, hala nola aterpetxeetarako. Horretaz gainera, profil horientzako baliabideak sortu eta sendotzeko egitasmoak finantzatu dira, ETXE BAT Programa kasu (Housing Led).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00446. Galdera, Tafallako industrialdeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Tafallako industrialdeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak hauxe jakinarazten du,

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak Tafallako Industrialdeari buruz idatziz erantzuteko eginiko 11-25/PES-00446 galderari buruz:

Tafallako industrialdea ezartzeko aurretiazko azterketa kontratatuta dago, eta idazketa-fasean dago egun. 2026ko lehen hiruhilekorako dago aurreikusita lana jasotzea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga